

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2399

AGINDUA, 2023ko maiatzaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez oinarri arautzaileak onartzen baitira partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak eta Euskal Autonomia Erkidegoan horiek kudeatzeko ardura duten tokiko ekintza-taldeak hautatzeko, 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren esparruan.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduak, III. tituluan, partaidetzazko toki-garapenari buruzkoa du II. kapitulua. Araudi horrek izan litezkeen finantza-laguntzak definitzen ditu, toki-garapeneko estrategien edukia eta hautaketa finkatzen ditu, tokiko ekintza-taldeen zereginak eta baldintzak ezartzen ditu –zeinak estrategiak sortu eta gauzatzeaz arduratzen diren erakundeak baitira–, eta, azkenik, izan litezkeen laguntza motak zehazten ditu. Halaber, aukera ematen die tokiko ekintza-taldeei kudeaketa-agintaritzak edo erakunde ordaintzaileak eskuordetutako zeregin osagarriak garatzeko, eta xedatzen du partaidetzazko toki-garapenerako laguntzaren barruan (PTGE) etorkizuneko estrategia diseinatzen eta gauzatzen laguntzeko gaitasunak eta prestakuntza-neurriak garatzea jaso dadila.

Partaidetzazko toki-garapena lurralde-politikako tresna bat da, eta plangintza-ekimena tokiko komunitateei lagatzen zaie haren bidez. Komunitate horiek, elkarte publiko-pribatuetan antolatuta, dituzten baliabideak erabiltzen dituzte lurralde jakin baterako garapen-estrategia landu eta gauatzeko.

Bertan finkatzen da lurralde- eta toki-garapeneko estrategietan oinarritu behar dela partaidetzazko toki-garapenaren planteamendua, –«Leader» izenekoa Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (LGENF) esparruan–, bai eta estatu kideek diseinatutako ekimenei laguntzeko beste edozein lurralde-tresna ere.

2021/2115 (EB) Erregelamenduaren –estatu kideek NPBren esparruan egin behar dituzten plan estrategikoetarako laguntzari buruzko arauak ezartzekoaren– 2. artikulua arabera (KEBPB erregelamendua), partaidetzazko toki-garapena LGENFk finantzatzeko laguntzari aplikatuko zaio. Zehazki, 77. artikulua bitartez arautzen da. Artikulu horrek lankidetzarako laguntzak ematea antolatzen du, eta horien artean jasotzen da 2021/1060 Erregelamenduaren arabera zehaztutako partaidetzazko toki-garapenerako estrategiak prestatu eta gauzatzea.

Adierazitakoaren arabera, funtsezkoa da tokiko ekintza-taldeen, tokiko komunitateen interesen ordezkari diren aldetik, partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak diseinatu eta gauatzeko ardura hartzea. Hala ere, lurralde-estrategiak agintari edo erakunde egokien ardurapean garatu eta babestu behar dira, eta azken horiek arduratuko dira estrategia horiek hautatzeaz. Beraz, kudeaketa-agintaritzak estrategia horiek hautatzeko irizpideak zehaztuko ditu, hautaketa egiten duen komitea sortuko du, eta komiteak hautatutako estrategiak onartuko ditu, 2021/1060 (EB) Erregelamenduaren 32.2 artikuluaekin bat etorritik.

Baliabide horrek, beraz, etapa berrian, jarraipena ematen die aurreko Leader I (1989-1993), Leader II (1994-1999), Leader PLUS (2000-2006), Leader ikuspegia (2007-2013) eta Leader (2014-2020) ekimenetako esperientziei, eta haietan sakontzen du.

Partaidetzazko toki-garapena, Leader toki-garapena izendatuko dena, eskualdeko agintariek Espainiako 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (aurrerantzean, 2023-2027 NPBPE) esparruan egin beharreko esku-hartzeen artean dago. Europako Batzordeak 2022ko abuztuaren 31n onartu zuen Plan Estrategiko hori. Agintari horiei dagokie autonomia-erki-degoaren eremuan Leader partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak hautatzeko prozesuak abian jartzea.

Hori guztia aintzat hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Agindu honen xedea da ezartzea partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak hautatzeko eta 2023-2027 programazio-aldian horiek kudeatzeko ardura duten tokiko ekintza-taldeak hautatzeko deialdi publikoa, honako hauen babespean: ekainaren 24ko 2021/1060 Erregelamendua (EB), xedapen komunei buruzkoa, eta 2021/2115 Erregelamendua (EB), abenduaren 2koa, zeinaren bidez plan estrategikoetarako laguntzarekin lotutako arauak ezartzen baitira.

Bigarrena.– Aplikazio-eremua.

Agindu hau Leader eremuan aplikatu ahal izango da; 2023-2027 aldirako artikulatua dago, eta agindu honen II. eranskineko landa-erakundeez osatua dago.

– Eremu honek guztira 1.273 erakunde hartzen ditu barne.

– 261.066 biztanle onar daitezke gehienez.

Hirugarrena.– Tokiko ekintza-taldeak.

1.– Estrategiak aurkezteko eta hautatzen direnak gauzatzeko ardura duten elkarteak tokiko ekintza-talde bihurtuko dira.

2.– Tokiko ekintza-taldeek, estrategiak aurkezteko, gutxienez agindu honen hurrengo artikuluan xedatutako eskakizunak bete beharko dituzte tokiko ekintza-taldeek.

3.– Gehienez 3 tokiko ekintza-talde hautatuko dira.

Laugarrena.– Tokiko ekintza-taldeen eskakizunak eta betebeharrak.

1.– Tokiko ekintza-taldeek, estrategiak aurkezteko, gutxienez eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Toki-mailan ezarritako solaskide publiko eta pribatuen talde orekatu eta esanguratsu batek eratuak izatea, zeinek estrategia bat definitzen baitute, landa-eremuko herritarrei informazioa eta laguntza ematen, komunitateak mugitzen eta estimulatzeko jardun-gunearen garapen ekonomikoari eta sozialari begira, eta jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko eta sendotzeko proiektuak abiaraztea sustatzen.

b) Partaidetzazko Landa Garapenerako Estrategia bat (PTGE) proposatu beharko dute, eta estrategia hori definitzeko eta gunean aplikatzeko gaitasuna dutela demostratu, ikuspegi hau izanik: partaidetzazkoa, goranzkoa, sektore anitzekoa, interaktiboa, berritzailea, lankidetzakoa eta enplegu-sortzailea.

c) Gardenak izatea funtzioak eta erantzukizunak esleitzean, emandako lanak egiteko solaskideek duten gaitasun osoa bermatu beharko da gainera, finantza-egitekoak barne, eta baita funtzionamenduko eta erabakiak hartzeko mekanismoen eraginkortasuna ere.

d) Printzipio hauek bermatu beharko ditu haien jardunak: lankidetzaren, objektibotasuna, inpartzialtasuna, eraginkortasuna, efizientzia, gardentasuna, publikitate eta lehia librea.

e) Tokiko interes sozioekonomiko publiko eta pribatuen ordezkariak osatuta egotea, non interes-talde bakar batek ere ez duen kontrolatzen erabakiak hartzea.

f) Irabazi-asmorik ez agertzea estatutuetan; horiek izango dira, nahiz eta merkataritzako jarduerak egin, jarduera horien ondoriozko irabazi guztiak erakundearen helburu ez-merkataritzakoak betetzeko inbertitzen dituzten erakundeak.

2.– Partaidetzazko landa-garapenerako estrategiek arduratzen diren tokiko ekintza-taldeen honako hauek egin beharko dituzte:

a) Onartutako partaidetzazko toki-garapenerako estrategia aplikazio-lurraldean gauzatzea.

b) Autonomia-erkidagoetako, estatuko edo Europako Erkidegoko kontrol-organoei jarduketak egiaztatzen laguntzea.

c) Kontabilitate beregaina eramatea onartutako estrategien esparruan garatutako ekintzetarako.

3.– Tokiko ekintza-taldeak, aplikatzekoak zaizkien arau autonomikoez gain, ekainaren 24ko 2021/1060 eta abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduetako (EE) betebeharrak administratiboan mende ere egongo dira.

Bosgarrena.– Partaidetzazko toki-garapenerako estrategiak.

1.– Deialdi honen III. eranskinean bildutako elementuak izan beharko dituzte, gutxienez.

2.– Estrategiek landa-eremuetan jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen eta sendotzen dituzten proiektuak sustatzea eta babestea izango dute helburu, eta arreta berezia jarriko dute gazteak eta emakume ekintzaileak buru dituzten proiektuak sustatzeko.

Era berean, Leader esku-hartzean lankidetzaren proiektuak abiarazi beharko dituzte, eta 2030 agendako garapen jasangarrirako helburuak (GJH) kontuan hartu.

Estrategiek, era berean, Smart Rural estrategiak martxan jartzeko balio ahal izango dute.

3.– Koherenteak izan beharko dira; dagokion lurraldean eta eskualdean aplikatzen diren esku-hartzeen osagarriak; izaera osoa eta transferigarria izan beharko dute, eta potentzial endogenoaren aprobeitxamenduan oinarritu beharko dira.

Seigarrena.– Eskabideak eta epeak.

1.– Toki-garapenerako estrategiak hautatzeko eskabideak Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendariari bidaliko zaizkio. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak elektronikoki aurkeztuko dira. Horretarako, euskadi.eus egoitza elektronikoa sartu beharko da.

2.– Automatikoki, berriazko baimenik gabe, egiaztatuko du organo kudeatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak daudela, bai eta IFK eta NANA ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagu-

siaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Hala ere, pertsona edo enpresa eskatzaileak modu arrazoituan aurka egin ahal izango du, eta, hala egiten badu, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera.

Zazpigarrena.– Hautapen-prozedura.

1.– Prozedura garden, ireki eta zehatz baten bidez hautatuko dira tokiko ekintza-taldeak eta haien estrategiak, eta Hautaketa Batzorde batek burutuko du prozedura hori. Honela osatuko da batzorde hori:

– Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria; lehendakari izango da.

– Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zerbitzuko arduraduna.

– Zuzendaritza horretako teknikari bat; idazkaria izango da.

2.– Hautatutako tokiko ekintza-taldeek estalitako lurraldea II. eranskinean ageri diren EAEko landa-eremu guztiak barne hartzen saiatu beharko da. Bi tokiko ekintza-taldek edo gehiagok eremu bera estaltzen badute, hurrengo atalean arautzen diren balorazio-irizpideen arabera puntuaziorik handiena lortzen duenari emango zaio lehentasuna.

3.– Hautaketa-prozesuan lurraldea, aurkeztutako estrategia eta tokiko ekintza-taldea baloratuko dira, irizpide hauen arabera:

3.1.– Esku hartzeko lurraldeari dagokionez, honako irizpide hauek baloratuko dira. Eremu honetan 1.273 erakunde daude, eta 261.066 biztanle guztira.

Hauek izango dira jarraitu beharreko irizpideak:

1) Agindu honen II. eranskinean, bai eta 2023-2027 NPBPEn ere, jasotako eremuarekin bat egiten duen jarduketa-eremua, 100 puntu.

2) Agindu honen II. eranskinean, bai eta 2023-2027 NPBPEn ere, jasotako eremua baino txikiagoa den jarduketa-eremua, 100 puntu ken 0,05 puntu estalduratik kanpoko erakunde bakoitzeko.

3.2.– Partaidetzazko toki-garapeneko strategiaren kalitatea baloratzeko, irizpide hauek hartuko dira aintzat:

1) Abiapuntuko egoeraren diagnostikoa: ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak (AMIA): 10 puntu, gehienez.

2) Jarduketaren xede izango diren helburuak argi definitzea: 10 puntu, gehienez.

3) Estrategiak koherentzia izatea lurraldean jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzeko eta sendotzeko eremuan hautemandako beharrekin: 10 puntu, gehienez.

4) Taldea osatzen duten tokiko eragileek eta erakundeek estrategia prestatzen parte hartzea: 10 puntu, gehienez.

5) EAEen eskualdeaz gaindiko proiektuak bultzatzen laguntzen duen estrategia: 10 puntu, gehienez.

- 6) Estatuko eta nazioarteko sareko eta lankidetzako lan-aurreikuspenak: 10 puntu, gehienez.
- 7) Izaera berritzaile nabarmena duten ekintzak: 10 puntu, gehienez.
- 8) Europako eta eskualdeetako beste programa batzuekiko koherentzia, osagarritasuna eta artikulazioa: 10 puntu, gehienez.
- 9) Estrategiak gazteak eta emakume ekintzaileak buru dituzten proiektuak sustatzen eta babes-ten laguntzea: 10 puntu, gehienez.
- 10) Estrategiak genero-berdintasuna laguntzea; hura diseinatzean eta 2030 agendako GJHak aplikatzean genero-ikuspegia erabiltzea: 10 puntu, gehienez.

3.3.– Tokiko ekintza-taldeek kalitateari dagokionez, irizpide hauek hartuko dira aintzat:

- 1) Leader programaren kudeaketan tokiko ekintza-talde gisa izandako esperientzia: 20 puntu, gehienez.
- 2) Proiektuak eta haien sustatzaileak hautatzeko prozedura gardenak. Baremazio-irizpideak eta -taulak: 20 puntu, gehienez.
- 3) Talde teknikoaren eta ekipamenduen egitura eta antolaketa: 15 puntu, gehienez.
- 4) Erabakiak hartzeko prozesua. Erabakitzeko organoen funtzionamendua. Eginkizunak eta eraketa. Deialdiak. Boto-eskubideak. Gehiengoak. Ahalmenak eskuordetzea: 15 puntu, gehienez.
- 5) Aipatu eremuko sektore ekonomikoetako eta sozialetako ordezkarien inplikazio-maila: 10 puntu, gehienez.
- 6) Kudeatzeko prozedurak; bereziki baloratuko da taldeak proiektuak kontrolatzeko sistema uneoro eguneratuta edukitzea. Sistema horrek horretarako diseinatzeko euskarri informatikoen bidez funtzionatuko du, eta estrategiaren kudeaketaren etengabeko jarraipena egiteko aukera emango du: 10 puntu, gehienez.
- 7) Publizitate-, lehia-, lankidetz-, objektibotasun-, inpartzialtasun-, eraginkortasun-, efizien-zia- eta gardentasun-printzipioak bermatzen dituzten neurriak: 10 puntu, gehienez.

Baloratzeko hiru alderdietako bakoitza –lurraldea, partaidetzazko toki-garapeneko estrategia eta tokiko ekintza-taldearen ezaugarriak– 100 puntura arteko puntuazioarekin baloratuko da. Balioetsi beharreko edozein alderditan 50 puntu baino gutxiago lortzeak aurkeztutako estrategia ezestea ekarriko du.

4.– Eskabidea sartu eta sei hileko gehieneko epean ebatzi eta jakinaraziko da deialdia. Epe hori igarota, berariazko ebazpenik ez badago, eskabideak ukatu direla ulertu beharko dute entitate inter-dunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 24. artikuluan xedaturikoarekin bat. Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaria-ren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, publizitate-ondorioetarako.

Prozeduraren ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio inter-dunak Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera, edo, hiru hilabeteko epean adminis-trazio-isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

5.– Ondoren, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta tokiko ekintza-taldeen arteko hitzarmenak sinatuko dira, ebazpenaren zortzigarren puntuari xedatutakoaren arabera.

Zortzigarrena.– Kudeaketa-prozedura eta lankidetzak-hitzarmenak.

1.– Tokiko ekintza-taldeek kudeaketa-prozedura bat izango dute, eta eskabidearekin aurkeztu beharreko partaidetzazko toki-garapeneko estrategiaren edukiaren parte izango da. Kudeaketa-prozedura horrek IV. eranskinean agertzen diren arau orokorrak bete beharko ditu.

2.– Tokiko ekintza-taldeek estrategiak kudeatu ditzaten, dagokion lankidetzak-hitzarmena sinatuko dute tokiko ekintza-taldeak eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, V. eranskinean ezarritako ereduaren arabera. Hitzarmen horiek barne hartuko dute tokiko ekintza-taldeek partaidetzazko toki-garapeneko estrategia kudeatzea, laguntzen kudeaketa, kontrol eta jarraipenerako arauak ezarriko dituzte, bai eta finantzaketa eta dagozkien erantzukizunak ere.

Bederatzigarrena.– Datuen babesa.

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko Lege Organikoan (abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa) eta indarreko gainerako araudian xedatutakoarekin bat etorritzatuko dira datu pertsonalak.

Helbide honetan dago jasota datuak babesteari buruzko informazioa:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/037300-cap2-eu.shtml>

Hamargarrena.– Errekurtsoa.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokeke Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2021/1060 Erregelamenduaren 32.3 artikulua honako hau ezartzen du: Kudeaketa-agintaritzak eskudunek estrategiak hautatzeko lehen txanda egingo dute, eta ziurtatuko dute hautatutako tokiko ekintza-taldeek 33. artikuluko 3. paragrafoan ezarritako zereginak egin ahal dituztela, hamabi hilabeteko epean, programa onartzen duen erabakiaren egunetik zenbatzen hasita, edo, funts bat baino gehiagoren laguntza jasotzen duten estrategien kasuan, hamabi hilabeteko epean, kasuan kasuko azken programa onartzen duen erabakiaren egunetik zenbatzen hasita.

Programa 2022ko abuzturen 31n onartu zen.

Oinarri arautzaile hauek irizpide orokorrak ezartzen dituzte, 2021/1060 (EB) Erregelamendua-ren 33. artikuluan xedatutakoaren arabera. Izan ere, artikulua horrek taldeen zeregin eksklusibo gisa ezartzen ditu, besteak beste, hautatzeko prozedura eta irizpideak prestatzea, proposatutako deialdiak egitea eta argitaratzea, eragiketarako hautatzea eta laguntzaren zenbatekoa zehaztea.

2023an, harik eta 2023-2027 nekazaritza-politika bateratuaren plan estrategikoa (NPBPE) Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko xedapenak ezartzen dituen esparru-dekretua argitaratzen den arte (une honetan izapidetzen ari da), Landaren, Itsasertzaren eta Europar Politiken Garapeneko zuzendariak, agindu bidez, tokiko ekintza-taldeak Leader deialdia kudeatzeko erabilgarri duen zenbateko ekonomikoa jakinarazi eta argitaratuko du.

Ondoren, esparru-dekretua izango da euskarri juridikoa, eta, besteak beste, EAEn ezartzen diren esku-hartzeetarako laguntzen deialdien edukiak jasoko ditu. Horiek, dekretuan jasotako berezitasunez gain, 2023-2027 nekazaritza-politika bateratuaren plan estrategikoaren (NPBPE) edukia aintzat hartu beharko dute deitutako esku-hartze bakoitzerako, eta finantzaketa-araubidea eta funtsen jatorria adierazi beharko dituzte. Aurtengo deialdien gutxienerako edukia I. eranskinean dago zehaztuta.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Gauzatzeko eta garatzeko baimena.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari ahalmena ematen zaio agindu hau gauzatu eta garatzeko egoki irizitako xedapenak emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 9a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

DEIALDIEN GUTXIENEO EDUKIA

Hautatutako Tokiko ekintza-taldeak/ek egin beharreko laguntzen deialdiak dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko araudiaren oinarritzko edukiak bete beharko ditu, eta horien artean, zehatz-mehatz adierazteko asmorik gabe, honako hauek daude:

– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua:

Onuradun edo erakunde kolaboratzaile izateko baldintzak.

1.– Onuradun edo erakunde kolaboratzaile izan daitezke dirulaguntza ematea oinarritzen duen egoeran edo deialdi hau arautzen duten oinarrietan xedatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo erakundeak.

2.– Honako egoera hauetako batean dauden pertsona edo erakundeak ezingo dira izan arau honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun edo erakunde kolaboratzaile, nola eta araudiak dirulaguntzaren izaeragatik salbuesten ez badu:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo batez kondenatuak izan badira, hauetako delituren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Borondatezko konkurtsoaren deklarazioa eskatu dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratu dituztenak, konkurtso-deklarazioa jaso dutenak, salbu eta horretan eraginkortasuna hartu badu hitzarmen batek, esku-hartze judizialaren mende daudenak edo desgaituta daudenak uztailaren 9ko Konkurtsoari buruzko 22/2003 Legearen arabera (gaur egun, 1/2020 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Konkurtso Legearen testu bategina onesten duena), konkurtsoaren kalifikazio-epaian ezarritako desgaitze-aldia amaitu gabe.

c) Errudun deklaratu izanik, hori eragin duen kausa dela-eta, Administrazioarekin egindako kontratu oro suntsitzea eragin izana.

d) Lege hauetan jasotako kasuren batean sartuta dauden pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak izanik: 3/2015 Legea, martxoaren 30ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen jarduna arautzen duena; 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunena; edo Hauteskunde Erregimen Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako kargu hautetsiak izatea, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak –indarrean dauden xedapenek ezartzen dituztenak– ez izatea arau zehazten den bezala beteta eta eguneraturik.

f) Araudiaren arabera zerga-paradisu gisa sailkatutako lurralde edo herrialderen baten izatea egoitza fiskala.

g) Ordaindu gabe izatea dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko obligazioak, erregelamenduz zehazten denarekin bat etorritik.

h) Epai irmo bidez zehatuta daudenak, eta beraz, dirulaguntzak lortzeko aukera galdu dutenak, lege honetan edo beste batzuetan zehaztutakoari jarraikiz.

i) Ezin izango dira onuradun izan 11.3 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako taldeak, baldin eta kideren batek aurreko debekuren bat badu.

j) Dirulaguntzak jasotzeko galerezpenek honako enpresei ere eragingo diete: zuzentzen dituzten pertsonak edo beste inguruabar batzuk direla-eta, pentsa badaiteke –eraldaketa, bategitea edo ondorengotzaren ondorioz– beste enpresa batzuen jarraipena edo deribazioa direla, eta horietan ere pertsona edo inguruabar haiek izan badira.

3.– Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluko 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-kausetan nahastuta dauden elkarteek ezingo dute esku-ratu lege honetan araututako dirulaguntzen onuradun edo erakunde kolaboratzailearen izaera.

Era berean, ezingo dira onuradun edo erakunde kolaboratzaile izan, baldin eta inskribatzeko administrazio-prozedura eten bada ez-zilegitasun penalaren zentzuzko zantzuak egoteagatik, 1/2002 Lege Organikoaren 30.4 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, harik eta ebazpen judizial irmoa eman, eta, horren bitartez, inskripzioa dagokion erregistroan egin ahal izan arte.

3 bis.– 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eskatzaileak merkataritza eragiketetan beran-kortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio eremuan sartzen diren subjektu baino ez direnean, ezingo dira onuradun edo erakunde laguntzaile izan lege horretan aurreikusitako ordainketa epeak betetzen ez dituzten enpresak.

Kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen sozietateek egiaztatuko dute hori, Lege honen Erregelamenduaren 26. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz. Kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten sozietateek ordaintzeko legezko ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu behar dute, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek emandako ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiri horrek kontuan hartuko du enpresa bezeroaren ordainketen benetako epea, enpresa hornitzaileak alde aurretik kobratzeko edozein finantzaketa alde batera utzita.

4.– Artikulu horretako 2. apartatuko b), d), e), f), g), h), i) eta j) letretan eta 3. eta 3 bis apartatuetan jasotzen dituen debekuak automatikoki egiaztatuko dira, eta kasuan-kasuan debekua eragin duten inguruabarrak bere horretan dauden bitartean iraungo dute.

5.– Artikulu honen 2. apartatuaren a) eta h) letretan jasotako debekuak automatikoki egiaztatuko dira. Debekuaren irismena epai edo ebazpen irmoak zehazten duena izango da. Bestela, irismena araudiz zehaztutako prozeduraren bidez ezarriko da, eta ezingo da bost urtetik gorakoa izan debekua ez bada epai irmo baten ondoriozkoa.

6.– Ekainaren 16ko 2/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen testu bateginaren 21. artikuluan, 20.c) artikuluekin lotuta, ezartzen duenaren arabera zehaztuko da artikulu honetako 2. apartatuko c) letran jasotako debekuaren egiaztapena eta irismena (Lege hori ordezkatu zuen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, zeinaren bidez 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora).

7.– Pertsona edo erakundeek justifikatu ahal izango dute ez daudela onuradun edo erakunde laguntzaile izateko debekuetan sartuta –artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan adierazitakoetan–. Horretarako, lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu-transmisioak erabil ditzakete, estatuko edo autonomia-erkidegoetako administrazio orokorrak teknika elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiltzea arautzen duen erregelamenduzko araudian ezarritakoaren arabera, edo administrazio-ziurtagiria, kasu bakoitzaren arabera; edo, bestela, agintaritza eskudunak ezin

badu agiri hori egin, horren ordez administrazio-agintaritza edo notario publiko baten aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango da.

– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 17.3 artikulua:

a) Dirulaguntzaren xedearen definizioa.

b) Onuradunek dirulaguntza jaso ahal izateko bete behar dituzten eskakizunak, eta, hala badagokio, lege honen 11. artikularen 2. apartatua eta 3. apartatuaren bigarren lerrokadan adierazitako erakundeetako kideek bete beharrekoak; deialdiaren laburpena zein aldizkari ofizialetan argitaratuko den, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bidez, deialdiaren testua eta argitaratzeko beharrezko informazioa hari aurkeztu ondoren; eta eskaerak aurkezteko modu eta epea.

c) Lege honen 12. artikuluko 2. apartatua aipatzen diren pertsona juridikoek zer nolako kaudimena eta eraginkortasuna izan beharko duten.

d) Dirulaguntza emateko prozedura.

e) Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, horien haztapena.

f) Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa edo hori zehazteko irizpideak.

g) Dirulaguntza emateko prozedura agindu, bideratu eta ebazteko organo eskudunak eta ebazpena jakinarazteko epea (agindu honetan ezarritakoarekin bat etorritik).

h) Hala badagokio, dirulaguntzaren justifikazio egokia egiaztatzeke kontabilitate-liburu eta erregistro berariazkoen zehaztapena.

i) Eskuratutako laguntza edo dirulaguntza onuraduna edo erakunde kolaboratzailea, hala badagokio, hasieran jarritako helbururako erabiltzen ari dela egiaztatzeke epea eta modua.

j) Hala badagokio, organo emailearen alde eratu beharrekotzat jotzen diren berme-neurriak, eratze-bideak eta ezerezte-prozedura.

k) Aldez aurreko ordainketak eta konturako abonauk egiteko aukera, eta, hala badagokio, baita onuradunek eman beharreko bermeen araudia ere.

l) Zer egoerak ebazpena aldatu ahal izatea ekarriko duen, dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatu direla iritzita.

m) Bateragarria edo bateraezina izatea helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik edo estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetatik etorrira ere.

Laguntza hauek bateragarriak izango dira onuradun berek administrazio publiko honetatik edo beste batzuetatik jasotako beste laguntza batzuekin, horien xedea edozein izanik ere, betiere laguntzen metaketak ez badu gainditzen onuradun bakoitzak hiru ekitalditan jaso dezakeen gehieneko zenbatekoa, hau da, 200.000 euro. Era berean, bateragarriak izango dira edozein administrazio publikok, sailek, organismok edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako «de minimis» laguntzak ez diren beste batzuekin, baldin eta metatzeak jardueraren kostuaren ehuneko ehun gainditzen ez badu eta gainfinantzaketarik eragiten ez badu.

Kasu horretan, gehiegizko kopuru hori kenduko zaio deialdi honen bidez emandako laguntzari.

n) Dirulaguntzak emateko ezarritako baldintzen ez-betetzeen mailakatze-irizpideak. Irizpide horiek aplikagarriak izango dira onuradunak azkenean jasoko duen zenbatekoa edo, hala bada-

gokio, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, eta proportzionaltasun-printzipioaren arabera izango dira.

Laguntza edo dirulaguntza ematea eragin zuen jarduera burutuko duen pertsona edo, era berean, ematea bera legitimatzeko egoeran dagoen pertsona izango da laguntza edo dirulaguntzen onuraduna.

2.– Onuradunaren betebeharrak hauek dira:

a) Jarduera egitea edo dirulaguntza ematea zilegi egiten duen egoeran egotea.

b) Dirulaguntza ematen duen erakundearen aurrean egiaztatzea laguntza jasotzeko edo baliatzeke ezarritako betekizun eta baldintza guztiak betetzen dituela eta egin beharreko jarduera egin duela.

c) Laguntza eman dien erakundearen egiaztatze-jarduketari men egitea. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura jasotako laguntzak eta dirulaguntzak direla-eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egin beharreko kontrol-jarduerei eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arautegi espezifikoan ezarritako jarduerari men egitea.

d) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea hasierako laguntza eman duen erakundeari.

e) Laguntza eman duen erakundeari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera objektibo nahiz subjektiboren aldaketak.

Dirulaguntza emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, dirulaguntza-programa kudeatzen duen instantziak automatikoki egiaztatuko du onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela, bai eta egiaztapen-prozedura ere, laguntzen edo dirulaguntzen eskatzaileek edo onuradunek horretarako berariazko baimenik eman beharrik gabe.

4.– Onuradunei dirulaguntzak eta laguntzak eman eta, hala dagokionean, ordaintzea baldintzapean dago; hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetze-fasean dagoen edozein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzearen baldintzapean.

5.– Ezingo zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuan oinarrituta diskriminatzen duten jarduerari, ezta sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

6.– Zernahi administrazio edo erakunde publiko zein pribatutik dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo xede bererako beste baliabide batzuk eskatzeari eta, kasuan kasu, lortzeari buruzko jakinarazpena, aurreko 2 zenbakiko d) letrak aipatzen duena, itzulketako edo zehapeneko edozein prozeduratan sartuta ez egoteari edo horrelako prozedurak amaituta egoteari buruzko egiaztapena, aurreko 4 zenbakiak aipatzen duena, bai eta pertsona edo erakunde eskatzailea

zigor- eta administrazio-arloan laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zehatuta ez dagoela edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez dagoela biltzen duen egiaztapena ere, aurreko 5 zenbakian aipatzen dena barne, erantzukizunpeko aitorpen baten bidez egin ahal izango da.

– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 29. artikulua. Onuradunek diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea.

1.– Lege honen ondorioetarako, onuradun batek azpikontratatu egin duela ulertuko da hirugarren batzuekin hitzartu duenean dirulaguntzaren xede den jarduera guztia edo haren zati bat haiek egitea. Dirulaguntzaren xede den jarduera berez egin ahal izateko onuradunak egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratzen da.

2.– Onuradunak jarduera, osorik edo zati batean, azpikontratatu ahal izango du, baldin eta dirulaguntza arautzen duen araudiak hala aurreikusten badu. Onuradunak hirugarrenekin azpikontratatu duen diruz lagundutako jarduerak ez du dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan finkatutako ehunekoa gaindituko. Baldin eta horrelakorik ezarrita ez badago, gehienez diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 50 azpikontratatu ahal izango du onuradunak.

Inola ere ezingo dira dirulaguntzaren kostua handiagotzen duten jarduerak azpikontratatu, jardueraren edukiari balio erantsirik gehitzen ez badiote.

3.– Hirugarrenekin azpikontratutako jarduerak dirulaguntzaren % 20tik gora hartzen badu eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada, azpikontratazioak betekizun hauek konplitu beharko ditu:

a) Kontratua idatziz egitea.

b) Kontratu hori egiteko baimena aurrez ematea dirulaguntza eman duen erakundeak, oinarri arautzaileetan ezarrita dagoen moduan.

4.– Ezingo da kontratua zatikatu haren zenbatekoa murriztu eta aurreko apartatuan zehaztutako baldintzak ez betetzeko.

5.– Kontratatistak onuradunaren mende soilik egongo dira, eta hark hartuko du bere gain diruz lagundutako jarduera gauzatzearen erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean.

6.– Aurreko apartatuan jasotakoa betetzeko, onuradunak izango dira hirugarrenekin itundutako jarduera diruz lagungarria betetzeko mugak betetzearen erantzuleak, hain zuzen dirulaguntzaren araudian ezarritako mugak gastu diruz lagungarrien motari eta zenbatekoari dagokienez, eta kontratistek lege honen 46. artikuluan aurreikusitako lankidetzeta-betebeharra bete beharko dute, muga horiek errespetatzen dituzten ala ez behar bezala egiaztatzea ahalbidetzeko.

7.– Alabaina, onuradunak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren gauzatze osoa edo partziala honako hauekin itundu:

a) Lege honen 13. artikuluan zehaztutako debekuetako bat duten pertsona edo erakundeekin.

b) Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeekin.

c) Bitartekari edo aholkulariekin, horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu totalaren ehuneko jakin gisa definitzen badira; non eta ordainketa hori ez dagoen justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.

d) Onuradunarekin loturaren bat daukaten pertsona fisikoak edo juridikoak, inguruabar hauek gertatzen direnean izan ezik:

1) Erakunde emailearen berariazko baimena aldeztatik lortzea.

2) Diruz laguntzeko zenbatekoa ez izatea lotutako erakundeak izandako gastua baino handiagoa. Kostua egiaztatzeko, pertsona onuradunaren gastuak frogatzeko ezarrita dauden baldintza berberak justifikatu beharko dira.

e) Deialdi edo programa berean laguntza eskatu duten baina betekizunak ez betetzeagatik edo behar den balorazioa ez lortzeagatik laguntzarik gabe geratu diren pertsonak edo erakundeak.

– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.2 artikulua.

Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan berariaz aurkakoa xedatu ezean, egindako gastutzat joko da dirulaguntza arautzen duen araudiak zehazten duen justifikazio-aldia amaitu aurretik eraginkorki ordaindutakoa.

Dirulaguntzaren onuraduna enpresa bat denean, merkataritza-jardueretan egin dituen gastu diruz lagungarriak aplikatzekoa zaion araudi sektorialean aurreikusitako ordainketa epeetan ordainduak izan beharko dira edo, halakorik ezean, merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

– Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.3 artikulua:

Eskatzailea erakunde pribatu bat bada, eskatzaileak hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez (haien kontzeptuak elkarren artean alderatzeko modukoak izanik), obrarako konpromisoa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren entrega kontratatu aurretik, zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkaturan horiek egiten, ematen edo hornitzen duen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik edo gastua dirulaguntza eman aurretik egin bada izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia.

2023ko maiatzaren 22a, astelehena

II. ERANSKINA

LEADER ERAKUNDEAK

Udalerrria-erakundea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera	Kalteberatasun-maila
Alegría-Dulantzi Alegría-Dulantzi	4
Alegría-Dulantzi Egileta	3
Amurrio Aloria	2
Bergantza-Ontsoño-Aldama-Pardio-Mariaka	2
Amurrio Artomaña	3
Amurrio Baranbio	3
Amurrio Delika	2
Amurrio Larrinbe	4
Amurrio Lekamaña	3
Amurrio Lezama	4
Amurrio Saratxo	3
Amurrio Tertanga	2
Aramaio Arexola	2
Aramaio Azkoaga	2
Aramaio Barajuen	2
Aramaio Etxaguen	2
Aramaio Gantzaga	2
Aramaio Ibarra	3
Aramaio Oleta	2
Aramaio Untzilla	2
Aramaio Uribarri	2
Artziniega Artziniega	3
Artziniega Campijo	2
Artziniega Gordeliz	2
Artziniega Mendieta	2
Artziniega Retes de Tudela/Erretes Tudela	2
Artziniega Santa Koloma	2
Artziniega Sojoguti/Soxoguti	2
Armiñón Armiñón	Arreta Bereziko Eremuak
Armiñón Estavillo	Arreta Bereziko Eremuak
Armiñón Lacorzana	Arreta Bereziko Eremuak
Arratzua-Ubarrundia Arroiabe	3
Arratzua-Ubarrundia Arzubiaga	2
Arratzua-Ubarrundia Betolaza	3
Arratzua-Ubarrundia Ziriano	2
Arratzua-Ubarrundia Durana	4
Arratzua-Ubarrundia Landa	2
Arratzua-Ubarrundia Luko	4
Arratzua-Ubarrundia Mendibil	2
Arratzua-Ubarrundia Nanclares de Ganboa/Langara Ganboa	4
Arratzua-Ubarrundia Ullibarri-Gamboa	4
Arratzua-Ubarrundia Zurbano/Zurbao	4

2023ko maiatzaren 22a, astelehena

Udalerrria-erakundea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera	Kalteberatasun-maila
Asparrena Albeiz/Albéniz	3
Asparrena Ametzaga Asparrena	3
Asparrena Andoin	2
Asparrena Araia	4
Asparrena Arriola	3
Asparrena Egino	2
Asparrena Gordoia	2
Asparrena Ibarguren	4
Asparrena Ilarduia	3
Asparrena Urabain	3
Ayala/Aiara Agiñaga	2
Ayala/Aiara Añes	2
Ayala/Aiara Beotegi	2
Ayala/Aiara Costera/Opellora	2
Ayala/Aiara Etxegoien	2
Ayala/Aiara Erbi	2
Ayala/Aiara Izoria	3
Ayala/Aiara Lejarzo/Lexartzu	2
Ayala/Aiara Luxo/Lujo	2
Ayala/Aiara Luiaondo	4
Ayala/Aiara Llantenó	2
Ayala/Aiara Madaria	2
Ayala/Aiara Maroño	2
Ayala/Aiara Menagarai	2
Ayala/Aiara Menoio	2
Ayala/Aiara Murga	3
Ayala/Aiara Ozeka	2
Ayala/Aiara Olabazar	2
Ayala/Aiara Quejana/Kexaa	2
Ayala/Aiara Arespalditza/Respaldiza	3
Ayala/Aiara Retes de Llantenó	2
Ayala/Aiara Salmantón	2
Ayala/Aiara Soxo/Sojo	2
Ayala/Aiara Zuaza/Zuhatza	2
Baños de Ebro/Mañueta Baños de Ebro/Mañueta	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Audikana	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Dallo	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Etxabarri Urtupiña	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Elgea	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Etura	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Gebara	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Heredia	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Hermua	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Larrea	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Marieta-Larrintzar	Arreta Bereziko Eremuak

2023ko maiatzaren 22a, astelehena

Udalerrria-erakundea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera	Kalteberatasun-maila
Barrundia Maturana	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Mendixur/Mendijur	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Ozaeta	Arreta Bereziko Eremuak
Barrundia Barrundia	Arreta Bereziko Eremuak
Berantevilla Berantevilla	Arreta Bereziko Eremuak
Berantevilla Escanzana	Arreta Bereziko Eremuak
Berantevilla Lacervilla	Arreta Bereziko Eremuak
Berantevilla Lacorzanilla	Arreta Bereziko Eremuak
Berantevilla Mijancas	Arreta Bereziko Eremuak
Berantevilla Santa Cruz del Fierro	Arreta Bereziko Eremuak
Berantevilla Santurde	Arreta Bereziko Eremuak
Berantevilla Tobera	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo Angostina	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo Arluzea	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo Bernedo	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo Berrozi	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo Izartza	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo Markinez	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo Navarrete	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo Okina	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo Quintana	Arreta Bereziko Eremuak
Bernedo San Román de Campezo/Durruma Kanpezu	Arreta Bereziko Eremuak
2.– Tokiko Garapeneko Estrategia:

2.1.– Esku hartzeko lurraldea:

– Jarduketaren eremu geografikoa eta estrategiak barne hartutako biztanleak.

– Hautatutako eremu geografikoa justifikatzea.

– Xehetasun-mapa.

2.2.– Abiapuntuaren diagnostikoa (testuingurua –tokikoa, sozioekonomikoa eta ingurumenekoa–).

– Tokiko testuingurua (landa-eremuko biztanleak):

• Adinaren, generoaren eta okupazioaren araberako egitura.

• Zahartze-maila. Biztanleak galtzea. Maskulinitate-tasa.

- Tokiko azpiegitura eta zerbitzuetarako sarbidea.
- Testuinguru sozioekonomikoa:
 - Enpresak sortzea, neurriak, ixteak eta zenbakiak.
 - Enplegua sektorearen, generoaren eta lanaldiaren (osoa edo partziala) arabera.
 - Langabezia-tasa sektorearen, generoaren eta adinaren arabera.
- Ingurumen-testuingurua:
 - Ura, airea eta lurzorua.
 - Natura-baliabideak eta hondakinak.
 - Natura eta biodibertsitatea.
 - Klima-aldaketa.

2.3.– Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak (AMIA) zehaztea.

2.4.– Tokiko ekintza-taldea osatzen duten tokiko eragileen eta erakundeen parte-hartze prozesuaren deskribapena. Prozesu honek tokiko komunitatearen lagin adierazgarri baten inplikazio aktiboa ekarri behar du.

2.5.– Estrategiaren helburuak eta helburu horiek antzemandako premiei nola erantzuten dieten aztertzea.

2.6.– Ekintza-plana. Jarduteko eremuak identifikatu behar dira, eta, horietako bakoitzari dagokionez, honakoak zehaztu: berariazko helburuak, egokitasun estrategikoa, ekintzaren eremua, onuradun hartzailak, aurreikusitako baliabideak, eta egin asmo diren proiektu propioak eta lankidetzara arlokoak.

2.7.– Proiektuak hautatzeko prozedura. Ondoren, taldeak deialdietan jakinarazi egingo du taldeak, eta, taula batean, eragiketak hautatzeko irizpideak eta gehieneko puntuazio-mugak adieraziko ditu, partaidetzazko toki-garapeneko estrategian bertan oinarrituta.

2.8.– Tokiko ekintza-taldearen helburu eta lorpenen eta strategiaren komunikazio- eta publizitate-plana. Hartzailen taldeak, eta tokiko ekintza-taldeen zer agiri egongo diren eskuragarri zehaztea.

2.9.– Jarraipen- eta ebaluazio-plana. Tokiko ekintza-taldeak estrategia hori gauzatzeko duen gaitasuna frogatzen duten kudeaketa-, jarraipen- eta ebaluazio-xedapenak. Erabili beharreko adierazle espezifikoak –2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren (NPBPE) adierazle esparruan aurreikusitako adierazle taulatik lortuta–, datu horien iturriak, eta proposatutako aldizkakotasuna eta metodoak. Plan hau aurrera eramateko baliabideak esleitzea, Nekazaritza Politika Bateratuaren aplikazio-eredu berria (New Delivery Model) kontuan hartuta, emaitzetara bideratutako aurrekontuarekin: helburuak betetzea eta emaitzak lortzea.

2.10.– Finantza-plana, LGENFren diru-izendapena barne, partaidetzazko toki-garapeneko strategiara, taldearen funtzionamendu-gastuetara eta lankidetzara bideratua.

2023-2027 NP Bren Plan Estrategikoarekin bat etorriz, taula bat egingo da, jarduketa motaren eta urteen arabera banakatuta: kostu publikoaren (Eusko Jaurlaritza, LGENF eta guztizkoa), kostu pribatuaren eta kostu osoaren (2023tik 2027ra) banakapena, jarduketa mota bakoitzaren totalerako.

Finantza-planak ezin izango du inola ere gainditu 2023-2027 NPBPEn EAEko LEADER esku-hartzerako ezarritako gastu publikoaren zenbatekoa.

2.11.– Iruzuraren aurkako plana. Eusko Jaurlaritzaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko orduan iruzurraren, interes-gatazken, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen kontra egiteko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egiteko eskatzen diren baldintzak betetzeko neurrien planean ezarritakoa beteko da (Gobernu Kontseiluak onetsi zuen, eta EHAA 2022ko urriaren 19an argitaratu zen).

IV. ERANSKINA

TOKIKO EKINTZA-TALDEAK KUDEATZEKO PROZEDURARI BURUZKO ARAU OROKORRAK

1.– Tokiko ekintza-taldeak laguntza-deialdiak egin eta argitaratuko ditu, eduki honekin:

– Harremanetarako gunea eta modua, herritarrek kontsultak egin ditzaten.

– Partaidetzazko Toki Garapeneko Estrategia (PTGE) aplikatzeko lurralde-eremua.

– Proiektuak hautatzeko irizpideak.

– Ekintza-plana eta lehenetsuneko ildoak, laguntza-mugak, inbertsioa eta proiektuen baldintza partikularrak zehaztuta.

– Eusko Jaurlaritzaren eta LGENFren informazioa eta publizitatea, laguntzen finantzatzaileak diren aldetik, bai eta deialdirako aurreikusitako zuzkidurak eta horretarako prestatutako aurrekontu-partidak ere.

– Hitzemandako ekitaldietarako finantza-zuzkidura. Tokiko ekintza-taldeak proiektu propio baterako kopuru jakin bat gorde badu, proiektuaren izenburua eta erreserbatutako zenbatekoa jaso beharko dira.

– Deialdiari eta aurkeztutako eta emandako proiektuei dagozkien aurkezteko eta gauzatzeko epeak.

– Beharrezko dokumentazioa, bai eta aurkezteko ezarritako inprimakiak ere.

– Hautaketa-prozedura, erabakitzeko organoan interes-gatazkarik ez dagoela bermatuta. Interes-talde bakar batek ere ez du erabakiak hartzea kontrolatuko, eta tokiko interes sozioekonomiko publiko eta pribatuen ordezkariak osatuko dute.

– Taldeak bere web orrian argitaratuko du laguntzen deialdia, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarriko du; dagokion informazio guztia pertsona/erakunde interesdunen eskura jarriko du, halaber.

Taldeak lan osagarri hauek egingo ditu:

– Hautagarritasuna baloratuko du, eta, bertan, proiektua PTGERi egokitzen zaiola egiaztatuko du.

– Diruz laguntzeko aukera baloratuko du, proiektua 2023-2027 NPBPERi egokitzeari dagokionez.

– Eskaerak baloratu eta lehenetsiko du, deialdian ezarritako hautaketa-irizpideak aplikatuz, eta hautagarritasuna, diruz laguntzeko aukera eta bideragarritasun positiboa kontrolatuko ditu.

– Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura hartuko du kontuan, onuradunak zein izango diren zehaztuko du, eta laguntzen zenbatekoa ezarriko du.

Halaber, tokiko ekintza-taldeak diruz lagundutako jardueren kontrola, jarraipena eta azken ziurtapena egingo ditu. Tokiko ekintza-taldeak, hala materialki nola dokumentu bidez, hobekuntza edo jarduera egin izana eta gastuaren eraginkortasuna egiaztatuko ditu. Diruz lagundutako jardueraren inbertsioak edo gastuak egin ondoren, onuradunak bukatu izana jakinaraziko dio taldeari, eta azken honek administrazio-espeditenteak izapidetu beharko ditu, tokiko ekintza-taldeko teknikariek ziurtapena egin dezaten. Horretarako, egoki irizten dien ikuskatzeak egin ahal izango ditu, betiere diruz lagundutako proiektuak egoki exekutatzaren direla egiaztatzearen, eta, hartarako, pertsona onuradunek eman egin beharko dute eskatzen zaien informazio eta dokumentazio oro.

Ziurtapena egin ondoren, taldeak zehaztuko du gastuak diruz lagungarriak diren, bai eta dagokion laguntzaren zenbatekoa ere. Azkenik, espedientea eta ordainketa-proposamena Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari helaraziko dizkio.

Tokiko ekintza-taldeak partaidetzazko toki-garapeneko estrategiaren publizitate egokia eman beharko die inguruko biztanleei, bai eta laguntzak emateko arauei dagokienez ere. Tokiko ekintza-taldea osatzen duten toki-erakundeak eta elkarteek, ordezkaritza izaera dutenak, strategiaren helburuak pertsona onuradun potentzialei ezagutarazteko behar den informazioa sartuko dute haien iragarki-oholetan eta argitalpenetan. Era berean, erabilitako funtsen publizitatearen inguruan ezarritako betebeharrak beteko ditu.

2.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak honako jarduketa hauek egingo ditu:

- Laguntza-deialdia berrikusiko du, bat datorrela bermatzeko.
- Taldeak egindako laguntzak emateko proposamena berrikusi eta balidatuko du, ebazpena eman aurretik.
- Laguntzen ebazpena eta jakinarazpena egin beharko ditu, eta erabakia arrazoitu beharko du ebazpen-proposamenetik aldentzen bada; azken hori ez da loteslea.
- Taldeak egindako proposamenaren ondoren ebatzitako laguntzen ordainketak egingo ditu.
- Deialdi bakoitzaren esparruko espedienteen lagin baten jarraipena eta kontrola egingo ditu.
- Bidegabe ordaindutako zenbatekoak berreskuratuko ditu.
- Eusko Jaurlaritzaren/LGENFren informazioa eta publizitatea berrikusiko ditu, laguntzen finantzatzaileak diren aldetik.
- Azpineurria kudeatzeko prozedura-eskuliburuak egingo ditu urtero.
- Tokiko ekintza-taldeak zaintzeko eta kontrolatzeko sistema egokia ezarriko du.
- Gora jotzeko errekursoak ebatziko ditu.
- Tokiko ekintza-taldeak egindako lanak balidatuko ditu, eta kontrolak egingo ditu (tokian bertan eta lanak egin ondoren).

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak behar diren jarraibideak emango ditu tokiko ekintza-taldeen eta proiektuen sustatzaileek ekainaren 24ko 2021/1060 eta abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduetan (EB) informazio- eta publizitate-jarduerei buruz xedatutakoa aplikatu dezaten.

V. ERANSKINA

HITZARMENA, EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAREN
ETA «.....» TOKIKO EKINTZA-TALDEAREN ARTEKOA, PARTAIDETZAZKO TOKI-
GARAPENENKO ESTRATEGIA APLIKATZEKO

.....(e)n,.....ko.....aren.....(e)(a)n.

Batetik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila,k ordezkatu, berau izendatzeko..... Dekretuaren indarrez eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen..... artikulua ematen dizkion eskumenak erabiliz.

Bestetik, «.....» tokiko ekintza-taldea (egoitzaren helbidea:, eta identifikazio fiskaleko kodea:), jaun/andre presidenteak ordezkatu,(e)ko erabakiaren bidez izendatua eta..... erabakiaren bidez hitzarmen hau sinatzeko ahaldundua.

Bi aldeek aitortzen diote elkarri hitzarmen hau sinatzeko legeko gaitasuna, eta hau

HAU ADIERAZTEN DUTE:

Lehenengoa.– Hitzarmen honen xedea da partaidetzazko toki-garapeneko estrategia aplikatzea aurrerago zehazten den jarduketa-gunean, EAEko 2023-2027 Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren arabera.

Bigarrena.– Ekainaren 24ko 2021/1060 eta abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduetan (EB) eta 2023-2027 NBPPEn xedaturikoa aplikatuz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak partaidetzazko toki-garapena Euskal Autonomia Erkidegoan arautu nahi du.

Hirugarrena.–(e)ko Aginduan iragarritako hautaketa-prozeduraren bidez, partaidetzazko toki-garapeneko estrategia bat aurkeztu zuen «.....» tokiko ekintza-taldeak; estrategia hori Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren.....(e)ko.....ren.....(e)ko Ebazpenaren bidez hautatua izan zen (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, zk.).

Laugarrena.– 2023-2027 NBPPEn eta aurreko puntuan adierazitako deialdiaren xedapenean aurreikusitakoaren arabera, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta tokiko ekintza-taldearen arteko harremana erregulatzeko arauak ezarri behar dira, hitzarmen bidez, Europar Batasunaren Batzordeak eta Autonomia Erkidegoak –aipatu sailaren bidez–, eta, zehazki, hautatutako partaidetzazko toki-garapeneko estrategia gauzatzeko, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak emandako laguntzen erabilera, jarraipena eta kontrolari dagokionez.

Adierazitakoaren arabera eta haien eskumenak baliatuz, bildutako alderdiek erabaki dute hitzarmen hau gauzatea, hona hemen edukiaren

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Xedea.

Hitzarmen honen xedea da tokiko ekintza-taldeak Euskal Autonomia Erkidegoan partaidetzazko toki-garapeneko strategiari dagokionez gauzatzen duen kudeaketaren esleipen, enplegu, kontrol, jarraipen, ebaluazio eta finantzaziorako arauak ezartzea, 2023-2027 NBPPEren esparruan (Europako Batzordeak 2022ko abuztuaren 31n onartuta).

Bigarrena.– Finantza-zuzkidurak.

1.– Europako funtsen eta Eusko Jaurlaritzaren finantza-kontribuzioa, ekarpen pribatuarekin batera, izango da estrategiaren kostu osoa; hasieran, euroan zenbatetsia. Kostu osoa, hitzarmen honen I. eranskineko finantza-koadroetan jasotzen da.

Finantza-koadro horiek hautatutako tokiko ekintza-taldearen strategiaren parte dira.

2.– euro (..... euro) izango da Eusko Jaurlaritzaren finantza-ekarpena, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legeak urtero zehazten duen aurrekontu-zuzkiduraren kontura, bai eta LGENFren finantza-ekarpena ere, Erakunde Ordaintzailearen bidez, 2023-2027 programazio-aldi osorako. Finantzaketa gehigarria epealdirako zenbatespen bat izango da.

3.– Baldin eta, Batzordearen erabakian –zeinak NPBPE onartzen baitu– xedatutakoaren arabera, LGENFren finantza-ekarpena aldatzen bada, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak aurreko paragrafoetan adierazitako zenbatekoak egokitu ahal izango ditu, eta finantza-koadro berri baten bidez gehituko dira Hitzarmen honetan.

Hirugarrena.– Eremu geografikoa eta ekimenaren xedea.

1.– Bertan adieraziko da tokiko ekintza-taldeak hautatutako estrategia aplikatuko duen jarduketaren eremua.

2.– Estrategiaren helburua izango da guneretan barne hartutako landa-garapenean laguntzea, estrategian adierazitako jarduketak aplikatuz partaidetzazko toki-garapenaren esparruan; eskematikoki, aipatu I. eranskina osatzen duten finantza-koadroetan zerrendatzen dira.

Laugarrena.– Jarduketa-printzipioak.

1.– Tokiko ekintza-taldea ekainaren 24ko 2021/1060 eta abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduetan (EE) oinarritutako lankidetzaren formula batean oinarritua dagoenez, bertan ezarritakoak zuzenduko du haren jarduketa, eta, aurreikusi gabekoetan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean Erakunde Laguntzaileentzako ezarritakoari atxikiko zaio.

2.– Estrategiaren helburuak betetzeko eta kudeatzen dituen funtsen publikotasuna dela-eta, lankidetzaren, objektibotasun-, inpartzialtasun-, eraginkortasun-, efizientzia-, gardentasun-, publikitate eta lehia-printzipioak bermatu behar ditu tokiko ekintza-taldearen jarduketak; inguruabar hauek zehazten dituzte kontzeptuok, besteak beste:

a) Lankidetzaren, herritarrekin, oro har, eta lurraldeko erakunde publiko edo pribatuarekin, tokiko ekintza-taldean partaide izan zein ez.

b) Objektibotasuna edo diskrezionaltasun-automugaketa, aurretik kudeaketa-prozedurak eta proiektuen balorazio-irizpideak ezarriz, eta emateko edo ukatzeko ebazpena behar bezala arazoituz.

c) Inpartzialtasuna, erabaki-organoaren parte diren pertsonen ezin dute proiektuen eztabaidetan eta bozketetan parte hartu, baldin eta horietan interes zuzena edo zeharkakoa badute, honako hauek direla eta: titulartasun-arrazoiak, ekonomikoak edo sozietarioak eta ahaidetasun-arrazoiak (odol-ahaidetasuneko laugarren gradura eta ezkontza-ahaidetasuneko bigarren gradura arte).

d) Eraginkortasuna, emaitzak eta adierazleak betetzeari dagokionez, Nekazaritza Politika Bateratuaren aplikazio-eredu berria (New Delivery Model) kontuan hartuta, emaitzetara bideratutako aurrekontuarekin: helburuak betetzea eta emaitzak lortzea.

e) Efizientzia, kostu txikienarekin onura sozial handiena lortzen duena, bereziki, emakume gazteen artean, edo ingurumena gehiago babestea, errendimendu, inbertsioen erabilera eta funtzionamendugastuen arteko gehieneko proportzioa lortzeko.

f) Gardentasuna gobernu onean.

g) Publizitatea: laguntzen araubidearena, proiektuak kudeatzeko prozeduren eta baloratzeko irizpideena, eta, aldian-aldian, hautatutako proiektuen, onartutako inbertsioen eta emandako dirulaguntzena. Halaber, azken onuradunek behar bezala zabalduko dute lagundutako proiektua, plaka edo kartel egokien bitartez.

h) Lehia, deialditik beretik datozen mugekin bakarrik, bai laguntza emateko zein tokiko ekintza-taldeak giza baliabideak edo materialak kontratatuzko, salbu egunero kopuru txikian erabiltzekoak, zeinak behar baitira beren ekipo teknikoak eta gerentziazkoak eratzeko, horien funtzionamendurako eta azterketa edo laguntza tekniko orotarako.

i) Berdintasunarekin eta genero-ikuspegiarekin lotuta jarduteko printzipioak.

Horretarako, agiriak, deialdiak edo iragarkiak haien iragarki-oholetan kokatzea eta horien argitalpenetan sartzea ahalbidetuko dute tokiko ekintza-taldeak nola toki-erakundeek, enpresa- edo sindikatu-elkarteek eta talde horien parte diren ordezkari izaerako bestelako erakundeek, printzipio hauek betetzen direla bermatzeko.

Bosgarrena.– Jarduketak gauzatzea.

Horiek gauzatzeko, tokiko ekintza-taldea doitu beharko zaio bai hautatutako partaidetzako toki-garapeneko estrategiari, eta bai 2023-2027 NPBP-eri, finantza-aurreikuspeni eta aplikatzekoa den Europako araudiari, Erkidegokoari eta tokikoari.

Seigarrena.– Kudeaketa-gastuak eta funtzionamendua.

1.– Gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

a) Gerentzia-taldeari, talde teknikoari eta administratiboari dagozkion gastuak, baldin eta akordioak badaude tokiko ekintza-taldearekin.

b) Tokiko ekintza-taldeko organo erabakitzaileen bilerei lotutako gastuak, horietan parte hartzeagatiko kalte-ordain mota oro.

c) Aholkularitza juridikoko edo teknikoko gastuak, baldin eta, behar denean behar bezala kontratatuta, zerikusi zuzena badute eta beharrezkoak badira garapen-programa behar bezala gauzatzeko.

d) Tokiko ekintza-taldea eskualde-, estatu- edo erkidego-mailako elkarte adierazgarrii atxikitzeak ekarritako gastuak.

e) Tokiko ekintza-taldearen funtzionamendurako beharrezkoak diren maileguen interes zordunak, finantza-gastuak eta kreditu-lerroak.

2.– Horrela, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, urte bakoitzeko lehen hiru hilabeteen barruan, I. eranskinean jasotako finantza-planean taldearen funtzionamendu-gastu gisa programatutakoaren % 50 ordainduko dio tokiko ekintza-taldeari, aurrerakin gisa. Hurrengo % 25a, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak aurreko aurrerakina behar bezala erabili duela justifikatu, akreditatu eta egiaztatu ondoren ordainduko da, eta gainerako % 25a, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak dirulaguntza osoa justifikatu, akreditatu eta egiaztatu ondoren.

Zazpigarrena.– Proiektuen pertsona titularrei, azken hartzaileei edo sustatzaileei laguntzak ematea.

1.– Tokiko ekintza-taldeak proposatuko ditu proiektuak, eta Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak emango dizkie proiektu horien pertsona titularrei onartutako estrategiari dagozkion laguntzak, agindu honetan xedatutakoaren arabera.

Laguntza-ildoak hautatzeko irizpide orokorrak tokiko ekintza-taldeak eta NPBPERen eskualdeko jarraipen-batzordeak onartuko dituzte beren estrategian.

2.– Horretarako ezarritako eskabide-ereduak erabili beharko dira laguntzak emateko prozeduran.

3.– Finantza-funtsen zuzkidurak, Europakoak zein Erkidegokoak, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariak gehienez aitor ditzakeen betebeharrak dira, beraz, izaera mugatzailea eta loteslea dute, hargatik eragotzi gabe finantza-plana aldatu ahal izatea.

Zortzigarrena.– Kudeaketa-prozedurak.

1.– Partaidetzazko toki-garapeneko estrategian barne hartutako kudeaketa-prozedurara doituko du bere jarduera tokiko ekintza-taldeak. Kudeaketa-prozedurako aldaketa oro aurretik baimendu beharko du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak.

2.– Tokiko ekintza-taldeak kontabilitate-sistema independente bat izan beharko du. Sistema horretan, partaidetzazko toki-garapeneko strategiarekin eta onartutako programarekin bakarrik lotutako gastuei, konpromisoei eta ordainketei dagokienez garatzen dituzten esku-hartze guztiak jasoko dira. Nolanahi ere, jarduketa horren kontabilizazioak irabazi-asmorik gabeko erakundeei buruzko EAEko kontabilitate-araudian eta erakunde horien aurrekontu-informazioko arauetan xedatutakoa beteko du, betiere haien forma juridikoa dela-eta beste kontabilitate-sistema jakin bat bete beharrik ez badute.

3.– Onartutako proiektuei dagozkien inbertsioak, gastuak eta laguntzak identifikatzeko eskatuko die tokiko ekintza-taldeak laguntza-eskatzaileei; horretarako, jarduera dela-eta erabili behar duten kontabilitate-sistemako kodifikazio egoki bat erabiliko dute.

4.– Dena den, Europako Batzordeak onartutako izaera horizontaleko xedapenetan jasotzen dira finantzaketa gauzatzeko eta Europako laguntzak ordaintzeko arauak eta prozedurak.

Bederatzigarrena.– Txostenak eskatzea.

Tokiko ekintza-taldeak honako hauek jakinaraziko dizkio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari –Sailak egoki irizten badio, betiere–: strategiaren gauzatze-egoera, sustatzaileen zerrenda, diruz lagundutako proiektuak, inbertsio diruz lagungarria eta eman, ziurtatu eta ordaindutako laguntzen zenbatekoa, finantzaketa-iturriaren arabera.

Hamargarrena.– Finantza-kontrola.

1.– Ekainaren 24ko 2021/1060 eta abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduetan (EE) eta arlo horretan ematen diren garapen-arauetan ezarritako kontrolerako Europako xedapenen mende daude bai tokiko ekintza-taldea, bai azken jasotzaileak.

2.– Europar Batasunaren Batzordearen eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren laguntzen kudeaketari dagokionez, kontrolaren eta egiaztapenaren mende dago tokiko ekintza-taldea, baita Ogasun eta Finantza Sailaren finantza-kontrolaren eta Kontuen Auzitegien mende ere. Laguntzen azken jasotzaileak ere kontrol bera iragan beharko dute, eta hori jakinarazi beharko die tokiko ekintza-taldeak pertsona horiei; laguntza jasotzeko, ezinbestean onartu beharko dute kontrol horiek iragatea.

3.– Azken ordainketa egin eta hurrengo bost urteetan, egindako gastuei eta ordainketak egin izanari buruzko kontabilitate-liburuak eta justifikazio-agiri guztiak gorde beharko ditu tokiko ekintza-taldeak, eta, hala dagokionean, aurreko atalean adierazitako erakundeen esku utzi beharko ditu.

4.– Diruz lagundutako jarduketa osorik egin dela eta ordainketa egin dela justifikatzeko agiriak aurkeztu beharko dizkiote laguntzen pertsona jasotzaileek tokiko ekintza-taldeari.

Hamaikagarrena.– Irregularitasunak prebenitu, antzeman eta zuzentzea.

1.– Ekainaren 24ko 2021/1060 eta abenduaren 2ko 2021/2115 Erregelamenduetan (EE) xedatutakoaren arabera, hitzarmen hau sinatzen duten alderdiak behartuta daude irregularitasunak prebenitzeko, atzemateko eta zuzentzeko behar diren neurriak hartzera, esleitutako finantza-zuzkidurak aplikatuz.

2.– Estrategia aplikatzean atzemandako irregularitasun oro jakinaraziko dio tokiko ekintza-taldeak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, horien berri izaten duen unean berean.

3.– Baldin eta proiektu bat egiteak onartutako finantza-kontribuzioa justifikatzen ez badu, osorik edo partez, laguntzaren zenbateko murriztuan edo deuseztatuan sartu ahal izango da jatorrizko finantza-neurri eta zuzkidurara.

4.– Baldin eta proiektuen pertsona titularrei laguntza ordaindu bazaie, irregularitasunengatik itzuli behar den zenbatekoa, LGENFri dagokion zatian, abenduaren 275/2020 Dekretuan ezarritakoaren arabera egingo da berreskuratzeko prozedura [275/2020 Dekretua, abenduaren 9koa, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) finantzatutako gastuen erakunde ordaintzailearen antolakuntza eta funtzionamenduraubidea Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa], eta, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak finantzatutako zatian, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan –Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermei eta itzulketei buruzkoan– xedatutakoari jarraikiz egingo da.

5.– Aurreko atalean xedaturikoa eragotzi gabe, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak murriztu, atxiki edo bertan behera utzi ahal izango du, kautelaz edo behin betirako, estrategia garatzera bideratutako kontribuzioa, baldin eta esku-hartzearen, neurriaren edo proiektuaren izaerari edo baldintzei eragiten dien irregularitasunen bat edo aldaketa nabarmenen bat balego, zeinentzat ez baitzitzaion eskatuko dagokion organoari berau onartzerik.

6.– Irregularitasun larrien kasuan, tokiko ekintza-taldeak egoera hori galtzea erabaki ahal izango du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, eta, kasu horretan, hamalagarren klausulan xedaturikoa aplikatuko zaio.

Hamabigarrena.– Tokiko ekintza-taldearen bestelako betebeharrak eta erantzukizunak.

Estrategia aplikatzeko, tokiko ekintza-taldeak behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu dagozkion egitekoak behar bezala egiteko, bai teknikoki bai ekonomikoki.

Hamahirugarrena.– Iraupena.

Sinatzen denetik Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak azken ordainketa egin eta bost urte igarotzen diren arte izango du indarraldia hitzarmen honek. Ondorioz, tokiko ekintza-taldea ezin izango da desegin epe hori igaro arte, non eta ez dizkion aurretik bermatzen hartutako erantzukizunak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari.

Hamalagarrena. –Ebazpena.

Hitzarmen hau alderdi bien adostasunez deuseztatu ahal izango da, edo bietariko baten erabaki arrazoituz; kasu horretan, idatziz jakinarazi beharko zaio beste alderdiari, hiru hilabete lehengotik, gutxienez.

Hitzarmena ezeztatzen bada, tokiko ekintza-talde izateari utziko dio tokiko ekintza-taldeak, eta jasotako laguntzak itzuli beharko ditu, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak zehazten duen zenbatekoa, hain zuzen ere.

Hamabosgarrena.– Hitzarmena aldatzea.

Hitzarmen hau aldatu ahal izango da alderdi bien adostasunez, partaidetzazko toki-garapeneko estrategiaren egiazko garapenaren arabera; horretarako, behar den aldaketa-akordioa sinatuko dute alderdiek, zeina iraupen-aldia amaitu baino lehen sinatu beharko baita.

Baldin eta berrikuspen horrek [ekainaren 24ko 2021/1060 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 2ko 2021/2115 (EB) Erregelamenduan aipatutako ebaluazio-planaren ondoriozkoak barne hartuta] finantza-neurriak edo -koadroak aldatzea badakar, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak onartuko du, eta horren berri NPBPEren eskualdeko jarraipen-batzordeari eta Europako Batzordeari emango die, aldaketa behin betiko onar dezaten.

Hamaseigarrena.– Izaera eta jurisdikzioa.

Sektore Publikoaren Kontratuen Legean ezarritakoen izaera dauka hitzarmen honek, eta, arau espezifikorik ezean, lege-testu horren printzipioak aplikatu behar zaizkio, sortzen diren zalantzak eta hutsuneak konpontzeko.

Hitzarmen hau interpretatu eta betetzeak sortzen dituen auzigaiak, administrazio-bidea amaituta, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende geratuko dira, horren berri izan eta ebatz ditzan, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera.

Eta, adostasunaren erakusgarri, agiri hau sinatzen da, ondorio bakarrerako eta hirukoiztuta, hasieran adierazitako lekuan eta epean.

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO ERANSKINA

KONFIDENTZIALTASUNA, ETA ZER BETEKIZUN DITUEN TOKIKO EKINTZA-TALDEAK DATU PERTSONALEN TRATAMENDU-ERAGILE GISA

Hitzarmen hau betetzeko, tokiko ekintza-taldeak honako tratamendu hauetan ageri diren datu pertsonalak tratatuko ditu:

Tratamendua: batera finantzatutako laguntzak (LGENF funtsak).

– Arduraduna: landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritza.

– Helburua: batera finantzatutako laguntzen kudeaketa, jarraipena eta kontrola (LGENF funtsak).

– Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion botere publikoak egikaritzeko.

– Hartzaileak:

– Erakunde ordaintzailea, HAZI Fundazioa, Europako Batzordea.

– Eskubideak: eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: gure web-orrialdean duzu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza (<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/037300-cap2-eu.shtml>).

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

– Tratatu beharreko eragiketak:

<input checked="" type="checkbox"/>	Bilketa / Erregistroa	<input checked="" type="checkbox"/>	Sailkapena /Egituraketa	<input checked="" type="checkbox"/>	Kontserbazioa / Segurtasun-kopia	<input checked="" type="checkbox"/>	Aldaketa /Egokitzapena
<input type="checkbox"/>	Erauztea	<input type="checkbox"/>	Kontsulta	<input type="checkbox"/>	Komunikazioa / Transmisioa	<input type="checkbox"/>	Mugatzea
<input type="checkbox"/>	Ezabatzea / Ezeztatzea / Ahaztua izateko eskubidea	<input type="checkbox"/>	Kopiak suntsitzea	<input type="checkbox"/>	Segurtasun-kopiak berreskuratzea	<input type="checkbox"/>	Erkaketa / Egiaztapena

– Gordetze-epeak.

Datuak jaso ziren helburua betetzeko eta balizko erantzukizunak zehazteko behar den denboraz tratatuko dira.

– Datuen eskuragarritasuna hitzarmena bukatzean.

Hitzarmena bukatzen denean, tokiko ekintza-taldeak datu pertsonalak itzuli beharko dizkio tratamenduaren organo arduradunari eta, hala badagokio, datu pertsonal horiek jasotzen dituzten euskarriak. Itzulitakoan, datu pertsonal guztiak ezabatu beharko dira tratamendu-eragileak erabilitako ekipamendu informatikoetatik. Hala ere, tokiko ekintza-taldeak kopia bat gorde ahal du, datu pertsonalak behar bezala blokeatuta betiere, hitzarmenaren betearazpenetik erantzukizunak erator litezkeen bitartean.

– Aplikatu beharreko pribatutasun-neurriak, mailaren eta dimentsioaren arabera.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren lehen xedapen gehigarriak xedatzen duenez, sektore publikoak Segurtasun Eskema Nazionalen aurreikusitako segurtasun-neurriak aplikatu beharko dizkie datu pertsonalen tratamenduei. Horrez gain, «baldin hirugarren batek zerbitzu bat ematen badu emakida bidez, kudeaketa-gomendio bidez edo kontratu bidez, segurtasun-neurriak jatorriko administrazio publikoarenak izango dira eta Segurtasunaren Eskema Nazionalera egokituko dira». Beraz, tokiko ekintza-taldeak Segurtasun Eskema Nazionalen (311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa) ezarritako segurtasun-neurriak bete beharko ditu.

Hala, tokiko ekintza-taldeak tratamendu-eragilearen modura jokatu du.

Eranskin honetan, xehetasunez zehazten dira babestu behar diren datu pertsonalak, baita egin behar diren tratamendu-eragiketak eta eragileak ezarri behar dituen neurriak ere.

Hitzarmena gauzatzearen ondorioz, eranskin honetan ezarritakoa aldatu behar izanez gero, tratamenduaren arduradunak eranskin eguneratua eman ahal izango du.

3.– Betebeharrak datu pertsonalen tratamendu-eragile gisa.

Eragileak jarraian zehaztutako betebeharrak beteko ditu, eranskin honetan zehaztutakoarekin osatuta, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduak (EB) 28. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta 95/46/CE Zuzentaraua (Datuak babesteko erregelamendu orokorra) indargabetzen du. Hona hemen betebeharrak:

a) Eranskin honetan zehaztutakoak ez diren beste datu pertsonalik ez du eskuratuko edo tratatuko, eta ez ditu erabiliko edo aplikatuko hitzarmenaren xedea gauzatzea ez den beste helburu baterako.

b) Datu pertsonalak eranskin honetan dokumentatutako jarraibideen arabera tratatuko ditu, bai eta, hala badagokio, tratamenduaren organo arduradunak idatziz emandakoen arabera ere, eta berehala jakinaraziko dio organo arduradunari, bere iritziz jarraibideren bat une bakoitzean aplikatu beharreko datu pertsonalak babesteko araudiaren aurkakoa bada.

c) DBEOren 32. artikuluan jasotzen diren segurtasun-irizpideen eta arriskuari eusteko irizpideen arabera tratatuko ditu datu pertsonalak, eta eskura ditzakeen datu pertsonalen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko beharrezkoak edo egokiak diren segurtasuneko neurri teknikoak eta antolakuntzakoak aintzat hartu eta beteko ditu.

d) Konfidentzialtasun osoz gordeko ditu hitzarmena betetzeko eskura ditzakeen datu pertsonalak, baita horiek tratatzearen ondoriozkoak ere, edozein euskarritan lortu direla ere. Eragileak egiten duen datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen pertsona orori aplikatuko zaio betebeharrak. Tratamendu-eragileak berak irakatsiko die bere ardurapean dauden pertsonen sekretu-eginbehar hori, baita hori mantentzeko beharra ere, nahiz eta hitzarmena bukatu edo harekiko lotura hautsi.

e) Ez dizkie hirugarrenei datu pertsonalak jakinaraziko, ezta kontserbatzeko ere, salbu eta, kasuak kasu, tratamenduaren organo arduradunaren aurretiko eta esanbidezko baimena bada.

f) Datu pertsonalak Europako Esparru Ekonomikoaren barnean edo araudi aplikagarriak segurtasun-eremu baliokidetzat hartzen duen beste eremu baten barnean tratatuko ditu, eta eremu horretatik kanpo ez ditu zuzenean tratatuko, ezta baimendutako beste edozein azpikontrastisten bitartez ere, hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera, salbu eta horretara behartuta bada. Europar Batasuneko edo aplikatu behar den estatu kideko zuzenbidearen arabera, eranskin honetan besterik adierazten bada edo tratamenduaren arduradunak horrelakorik agintzen badu espresuki.

g) Tratamenduaren arduradunari berehala eta prestasunez jakinaraziko dio bere ardurapeko datu pertsonalen segurtasunaren edozein urraketa, jakin bezain laster eta 72 orduko epean beranduez, informazio garrantzitsu guztia emanez gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko; era berean, informazioa tratatzeko eta kudeatzeko sisteman izan duen edo izan dezakeen edozein akatsen berri ere emango dio, baldin eta akats horrek datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo erabilgarritasuna arriskuan jartzen badu. Baita hitzarmena bete bitartean lortutako datuak edo informazioak hirugarren pertsonari jakinaraztearen ondorioz, egon daitekeen edozein konfidentzialtasun-urratze ere, eta zehaztuko du zer interesdunek izan duen konfidentzialtasun-galera; hori guztia, DPBOren 33. artikulua arabera.

h) Tratamendu-arduradunari al bait lasterren jakinaraziko dio interesdun batek duen edozein eskubide baliatu duela bere aurrean, hau da, datu pertsonalak, eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurkaratzeko, tratamendua mugatzeko eta eramateko eskubideak, edo araudi aplikagarriak aitortzen dituen beste eskubide batzuk, eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea.

Jakinarazpena berehala egin beharko da, eta, eskubidea erabiltzeko eskaera jasotzen denetik ezingo da inola ere lanegun bat baino gehiago igaro. Horrekin batera, eskubidea erabili duenaren identifikazio sinesgarria aurkeztuko da, eta eskaera ebazteko garrantzitsua izan daitekeen dokumentazioa eta beste informazio batzuk ere gehituko dira, hala badagokio.

Tratamenduaren organo arduradunari lagunduko dio, ahal izanez gero, interesdunak bere eskubidea bete ahal izateko eta eskubide horri erantzun ahal izateko.

i) Tratamendu-arduradunarekin lankidetzan arituko da, betebeharrak bete dituzan: segurtasun-neurriak ezarri; agintaritza eskudunei edo interesdunei segurtasun-neurrien urraketak (egin direnak edo egiten saiatu direnak) jakinarazi; agintaritza eskudunei datu-babesaren gaineko eraginaren ebaluazioak eta alde zuzeneko kontsultak egiten lagundu. Hori guztia egiteko orduan, tratamenduaren izaera eta eskuragarri duen informazioa kontuan hartu beharko ditu.

Era berean, tratamenduaren arduradunaren eskura jarriko du, horrek eskatuz gero, hemen xedatzen diren betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko behar den informazio guztia. Hala badagokio, tratamenduaren arduradunak egindako auditoria edo ikuskaritzetan ere lagunduko du.

j) Hitzarmena dela-eta azpikontratazioa egiten bada, tratamenduaren arduradunari jakinaraziko zaio zein enpresarekin egingo den balizko azpikontratazioa, eta espresuki baimendu beharko du.